

**BATZORDEAREN KOMUNIKAZIOA****Bisa-operazioak apurka-apurka eta modu koordinatuan berrabiarazteko orientazioa C(2020) 3999 final**

COVID-19aren pandemiaren hedapena eusteko neurrien artean, Estatu Kide gehienek erabaki zuten bidaia ez-funtsezkoetarako bisa-eskaeren prozesamendua bertan behera uztea, kasu askotan, mugagabeko epe baterako.

Orain, kanpo-mugetako murrizketak arindu dira; nazioarteko bidaia-konexioak apurka-apurka berrabiarazi dira eta hirugarren herrialdeetan konfinamendu-neurriak murriztu dira. Hortaz, bidaiariak bisa-zerbitzuetarako sarbidea berreskuratu beharko lukete hirugarren herrialdeetan.

Maiatzean, batzordeak bi bilera informal antolatu zituen Estatu Kideetako bisen arloko adituekin, bisa-operazioak berrabiarazteko prozesua prestatze aldera. Bilera horietan, Estatu Kide guztiek erabaki zuten bisa-operazioak berrabiarazteko prozesua erabat sinkronizatu beharko litzatekeela kanpoko mugetako murrizketak kentzearekin eta, horrez gain, leku bakoitzeko kontsuletxeekin koordinatu beharko litzatekeela.

Bilera horietan oinarrituta, Europako Batzordeak gida bat argitaratu du Estatu Kideei laguntzeko prozesu hori modu harmonizatuan burutzen.

Bisa-eskaerak berrabiaraztea: Bisa-eskaerak prozesatzeko gaitasuna mugatua den bitartean, funtsezko bidaiarien eta langileen eskaerak lehenetsi behar dira.

Hala eta guztiz ere, hirugarren herrialde zehatz batetik bidaia ez-funtsezkoak ahalbidetzen direnetik, uste da ez dela beharrezkoa eta kaltegarria izan daitekeela "lehentasunezko bidaiariak" bezalako kategoria gehigarriak zehazteko saiakerak egitea.

Ahal izatekotan, Estatu Kideek konpromisoa hartu behar dute kokapen bakoitzean operazioak aldi berean berrabiarazteko eta, dagokionean, bisen eremuan beste Estatu Kide batzuen ordezkari osoa lehengoratzeko. Era berean, Estatu Kideek Bisen Kodearen arau orokorrak aplikatzen jarraitu behar dute eskaerak izapidetzean eta bisak ematean. Gainera, horrek mezu argiagoa helaraziko dio publikoari eta *visado shopping* fenomeno edo bestelako gehiegikeriak saihestuko ditu.

Osasun publikoarentzako mehatxuen ebaluazioa bisa-prozeduraren elementu bat izan arren, bisa-politika ez da nagusiki osasun-politikako tresna bat. Bisa-eskaera egiten denean, ez da osasun-kontrolik eskatu behar; zehazki, bisa-eskaera hori, gutxienez, bidaia baino 15 egun lehenago egiten da eta 6 hilabete lehenago ere eska daiteke.

Operazioak berrabiarazteko prozesu harmonizatua prestatzea eta ezartzea: Estatu Kideei gomendatzen zaie berehala hasteko eskatzaileak eta eskaerak jasotzeko sarbide-protokolo berriak garatzen, kanpoko zerbitzuen hornitzaileak zein kontsuletxeak barne hartzen dituztenak.



Besteak beste, neurrien artean hauek sar daitezke:

- Higiene-neurrientzako protokoloak ezartzea,
- Derrigorrezko aurretiazko hitzordua lokaletara sartzeko,
- Elkarrekintza fisikoa ahalik eta gehien murriztea.

Bisak eskatzeko izapideak: Operazioak berrabiaraztean, Estatu Kideek printzipio hauek bete behar dituzte:

- 1. Bisaren Kodearen aplikazioa:** Bisaren Kodearen xedapen orokorrak aplikatzen jarraitzen da. Zehazki:
 - Schengen espazio osorako balio duten bisak xedapen orokorrei jarraiki eman behar dira. Ez dago legezko oinarririk mugatutako lurralde-baliozkotasuna duten bisen igorpen sistematikorako;
 - Estatu Kideek ez dute bisen baliozkotasunaren iraupena mugatu behar; izan ere, ez da tresna eraginkorra COVID-19aren hedapena saihesteko. Gainera, bisa bat edukitzeak ez dio titularrari kanpoko muga gurutzatzeko erabateko eskubidea ematen, Schengen Mugen Kodearen arabera sarrera-baldintzak berriz ere egiaztatuko direlako bidaiatzerakoan;
 - Sarrera anitzeko bisak arau orokorren arabera eman behar dira. Baliozkotasun-epe luzeak dituzten bisek lan-zama murriztuko diete Estatu Kideetako kontsuletxeei, bereziki, operazioak langile gutxiagorekin berrabiarazten direnean, ohiko bidaiariak maiztasun txikiagoarekin eskatu beharko dutelako bisa berri bat.
- 2. Publikoarentzako informazioa:**
 - Estatu Kideek (eta kanpoko zerbitzuen hornitzaileek) higiene-neurri berrien eta eskatzaileak eta eskaerak jasotzeko sarbide-protokoloen inguruko informazio egokia bermatu behar dute,
 - Bisa-titularrari banaka eman behar zaie informazioa (informazio-orria pasaportea itzultzerakoan emango da); halaber, nabarmendu behar da bisa bat edukitzeak ez duela bidaiaria salbuesten EBren barruan egon daitezkeen eta pertsona baten nazionalitatea gorabehera aplikatzen diren berrogeialdi-eskakizunak bezalako bidaiamurrizketak betetzeaz.
- 3. Ordezkaritza-akordioak:**
 - Ordezkaritza-akordioak berrezarri behar dira eskatzaileek eskaerak bere egoitza-herrialdean aurkeztea ahalbidetzeko, leku zehatz batean ez dauden eta bertan ordezkatuta ez dauden Estatu Kideetarako bisak barne.
 - Kontsuletxe batzuetan aldi baterako gaitasun-arazoak egongo balira, Estatu Kideek azkar parte hartu behar dute ad hoc ordezkaritza-akordioetan solidaritatea erakutsiz.
- 4. Tokiko mailako koordinazioa eta informazio-trukea:** Estatu Kideek esfortzuak egin behar dituzte koordinazio eta informazio-fluxu optimoak lortzeko eta ezarritako lan-metodoen inguruko jardunbiderik egokienak partekatzeke, haiekin lan egiten duten



LEHENDAKARITZA

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA

Secretaría General de Acción Exterior

kanpoko zerbitzuen hornitzaileenak barne. Elkarrekiko koordinazioa eta informazioa ere funtsezkoak dira etorkizunean bidaia-murrizketa batzuk berrezarri behar badira.

- 5. Schengen lankidetzaren papera:** Schengenen esparruan, lankidetzak funtsezko papera dauka uneoro bermatzeko bisen politika komunaren ezarpen harmonizatua. Batzordeak gogorarazten du Schengen lankidetzaren funtzionamendu ona Estatu Kideen eta EBren kanpoko delegazioen erantzukizun partekatua dela. Estatu Kideetako agintaritza zentralek beharrezko malgutasuna eman beharko liekete kontsuletxeei, operazioak modu harmonizatuan berrabiarazteari buruz Tokiko Schengen Lankidetzan adostutako ikuspegira egokitu ahal izateko.

Ondorioa

Ezin dugu ahaztu COVID-19aren pandemiaren bigarren berragertze batek edo osasun-larrialdi global batek bidaia-murrizketak berriz ere ezartzera behartu gaitzakeela etorkizunean.

Epe laburrera, eskatzaile guztientzat eta, zehazki, garraioaren funtsezko langileentzat (kamioi-eta tren-gidariak eta aire- eta itsas-tripulazioa) baliozkotasun luzea duten sarrera anitzeko bisak igortzeko arau orokorren aplikazioa kontingentzia-neurritzat ere hartuko da. Horrek lagunduko du azkenengo asteotan gertatu diren bidaiari funtsezkoentzako botila-lepo administratiboak errepikatzea saihesten.

Helburua izan beharko litzateke bisen politika komuna azkenengo hilabeteetan jasandakoak bezalako eskala handiko etenaldien aurrean erresistenteagoa izatea.